

# Kaiko arrapala ez pribatizatu!

Hemen bildu garenok gure desadostasuna eta haserrean adierazi nahi dugu arrapala PRIBATIZATU egin dutela ikusita.

Gure auzoan, bai kaian, bai gainontzeko kaleetan, jasan dugun pribatizazio eta kolonizazio prozesuaren azken kapitulu da arrapalaren.

Urtean zehar, baina bereziki udan, auzotarron bizi baldintzak ikaragarri okertzen dira. Izan ere, masifikazio turistikoaren ondorioak jasanezinak egiten ari diren horietan, leku guztietatik bota egin gaituztela sentitzen dugu. Ez dago auzotarrontzat tokirik, auzoa negozioa kosta ahala kosta egin nahi dutenen eskuetan jarri zen aspaldi eta gaur egun, ez dirudi instituzioen aldetik, eragindako kalteak zuzentzen hasteko asmorik dagoenik.

Arrapalaren itxiera edo pribatizazioa da azken kapitulu, bai.

Kaiak azken urteotan jasan duen etengabeko pribatizazioaren azken gingga. Turistentzako txalupak nonahi, ez dago bainatzerik, ez "Perrita" egiterik eta orain ez arrapalan bainatzerik ere.

Alde Zaharreko bizilagunontzat toki hauxe da udan geratzen den arnascune txikietako bat. Bertan elkartzen da makina bat haur, familia nahiz heldu, eguneko bainua hartzeko eta aisialdiaz gozatzeko.

Gainera, oroitarazi behar da kaia legez babestuta dagoela ("Apirilaren 16ko Dekretua 68/2019"): ondare materiala (egitura) eta inmateriala (besteak beste, mendetako tradiziozko ohitura eta usadio sozialak suposatzen dutenak). Gure ustez, ondare materiala arretaz zaindu behar den bezala, jarduera sozialak ere modu egokian babestu eta zentzuzko eran egokitu behar dira.

Bukatzeko, asaldatzen gaituena da bizilagunoi sarrera debekatzen zaigun bitartean, bestelako jarduerak aurrera eramateko zabalik izango dela: Bela ikastaroak; uretako moto, paddle surf, piragua eta abarren alokairua...

Asko eta asko negozio pribatuak dira eta interes publikoen gainetik lehenetsi dira, berriz ere. Auzotarrok arrapalan bainatzerik ez dugun bitartean, hortxe ibiliko dira gora eta behera orduko hainbeste ordaindu duten turistak. Hori al da aisialdia eta espazio publikoaren bidezko erabilera bermatuko dituen hiri eredua? Alegia, hori al da bertakoen nahiz kanpokoen eskubideak errespetatuko dituen hiri baten eredua?

Guk garbi dugu honela, bertako bizilagunok espazio publikoaz gozatzeko dugun eskubidea zapaldu egin dela eta horregatik, arrapalan jartzen hasi diren hesia lehenbailehen kentzeko eskatzen dugu.

## KAIA ETA ARRAPALA GUZTIONAK ETA GUZTIONTZAT!

### ¡No a la privatización de la rampa del muelle!

Las personas aquí reunidas queremos manifestar nuestro desacuerdo e indignación ante el hecho de que la rampa haya sido PRIVATIZADA.

El de la rampa es el último capítulo del proceso de privatización y colonización que hemos sufrido en nuestro barrio, tanto en el muelle como en el resto de sus calles.

A lo largo del año, pero especialmente en verano, las condiciones de vida de las vecinas empeoran enormemente. Y es que ahora que los efectos de la masificación turística se están haciendo insoportables, sentimos que nos han echado de todas partes. No hay sitio para las vecinas, el barrio se puso en manos de

quienes quieren hacer el negocio a toda costa hace tiempo y hoy, no parece que por parte de las instituciones, haya intención de empezar a corregir los daños causados.

El último capítulo es el cierre o privatización de la rampa, sí.

La guinda a la continua privatización que ha sufrido el muelle durante los últimos años. Embarcaciones para turistas por todas partes, prohibición del baño y de la “Perrita al agua”. Y ahora, el remate, prohibido bañarse en la rampa.

Para las vecinas y vecinos de la Parte Vieja este lugar es uno de los pequeños pulmones que quedan en verano. Allí se reúnen infinidad de niños, familias y adultos, para darse un baño y disfrutar de su tiempo libre.

Además, hay que recordar que la Parte Vieja-Puerto es objeto de protección legal (*"Decreto 68/2019 del 16 de abril"*). El decreto desarrolla la normativa que protege los elementos materiales e inmateriales del conjunto, incluído el puerto. Para nosotros, el uso de algunos espacios del puerto forma parte del patrimonio inmaterial de la vida social del Puerto y de la historia de la ciudad.

Lo indignante es que mientras se nos prohíba la entrada, estará abierta para otras actividades: cursos de vela; alquiler de motos acuáticas, paddle surf, piragua, etc.

Muchos son negocios privados y han vuelto a primar sobre los intereses públicos. Mientras las vecinas no podamos bañarnos en la rampa, veremos subir y bajar a los turistas que hayan pagado tanto por hora. ¿Es éste el modelo de ciudad que garantice el ocio y el uso justo del espacio público? Es decir, ¿Es éste el modelo de ciudad que respete los derechos de sus vecinas y de sus visitantes?

Nosotras tenemos claro que el derecho de los vecinos y vecinas a disfrutar del espacio público se ha pisoteado y por ello pedimos que se retire cuanto antes la valla que se ha empezado a colocar en la rampa.

## **¡EL MUELLE Y LA RAMPA DE TODAS Y PARA TODAS!**